

# PROBA ESPEZIFIKOA

2021eko PROBA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

2021eko MAIATZA

**FILOSOFIAREN**

**HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2021

**HISTORIA DE  
LA FILOSOFÍA**

---

### Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete  
Erantzun zortzi ariketa hauetako lauri  
(Galdera bakoitzak 2,5 puntu balio du)

#### 1. Egin ezazu iruzkin bat aforismo hauen esanahiari buruz:

- “Pertsona bat ezin da bi aldiz bainatu ibai berean”
- “Gerra da gauza guztien aita”

Zer filosofoenak dira? Zer esan nahi dute?

**2. Irakur ezazu arretaz zerrendatxoa, eta identifika ezazu zein baieztapen datozen bat sofisten filosofiarekin eta zein, berriz, Sokratesen filosofiarekin; egin ezazu iruzkin bat haien edukiari buruz, eta azter itzazu haien arteko aldeak:**

- Ezagutu zeure burua.
- Errealitatea ikusten dena besterik ez da.
- Egia existituko balitz, ezingo genuke ezagutu..

**3. Identifikatu lau kausak —efizientea, materiala, formala eta xedezkoa— ondoko adibidean, eta egin haietako bakoitzaren definizio labur bat:**

Fidias eskultore handia sirena baten eskultura zizelkatzen edo lantzen ari da marmolezko bloke batean, Partenoia apaintzeko.

**4. Azaldu nola ulertzen duen San Agustinek arrazoimenaren eta fedearen arteko erlazioak.**

**5. Identifika ezazu zer ezaugarri dagozkion etika material izenekoei eta zein etika formal kantiarrari:**

- a) Autonomoak dira.
- b) Inperatibo hipotetikoak formulatzen dituzte.
- c) Edukia dute.
- d) Inperatibo kategorikoak formulatzen dituzte.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

2021eko MAIATZA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2021

**HISTORIA DE  
LA FILOSOFÍA**

- e) Ez dute edukirik.  
f) Heteronomoak dira.

**6. Zuzen erlazionatu Marxengan eragina izan zuten autore eta korronteei buruzko bi datu-zutabe hauek:**

- |               |                        |
|---------------|------------------------|
| • Saint Simon | Anarkismoa             |
| • Feuerbach   | Sozialismo utopikoa    |
| • Adam Smith  | Ezker hegeldarra       |
| • Proudhon    | Liberalismo ekonomikoa |

**7. Adieraz itzazu “jauntxoan moralaren” eta “esklaboen moralaren” arteko desberdintasun nagusiak, eta azaldu itzazu Nietzschek “ahulen moralari” egin zion kritikaren funtsezko alderdiak.**

**8. Azaldu ezazu zer adierazten duten Sartrearen filosofiaren adierazpen gogoangarri hauek:**

- a) "Gizakia alferrikako pasio bat da".  
b) "Askatasunera kondenatuta gaude".



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

2021eko MAIATZA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2021

**HISTORIA DE  
LA FILOSOFÍA**

**EBAZPENA: FILOSOFIAREN HISTORIA  
(2021eko maiatza)**

**Azalpenak**

Probaren iraupena: ordubete

Erantzun zortzi ariketa hauetako lauri  
(Galdera bakoitzak 2,5 puntu balio du)

**1. Egin ezazu iruzkin bat aforismo hauen esanahiari buruz:**

- “Pertsona bat ezin da bi aldiz bainatu ibai berean”
- “Gerra da gauza guztien aita”

Zer filosofoenak dira? Zer esan nahi dute?

**Erantzuna:**

Bi aforismoak Heraklitorenak dira, eta hau litzateke haien esanahia:

•“Pertsona bat ezin da bi aldiz bainatu ibai berean” esaldiak naturak etengabe jasaten duen aldaketa islatzen du; funtsean, tentsioa eta dinamismoa. Naturan dena ari da etengabe aldatzen, ibai bateko ur-lasterra bezala, non urak etengabe ari baitira berritzen. Ibaiko ur-lasterra Heraklitoren filosofiaren sinboloa da: “Panta rei: dena dabil, ezer ez dago geldirik”.

•“Gerra da gauza guztien aita”: naturak jasaten duen etengabeko dinamismo hori etengabe lehian dabilzan aurkarien arteko borroka azaltzen du: Hotza – beroa, gaztetasuna – zahartasuna, eguna – gaua. Aurkarien arteko borroka edo gerra horrek sortzen du naturaren dinamismoa azalduko lukeen tentsioa. Aurkarien edo antitesien arteko borroka hori bere metodo dialektikoan jaso zuen Hegelek. Marxek, gero, klase-borroka historiaren motorra dela baieztatu zuen. Ikus daitekeenez, luzea da Heraklitoren itzala.

**2. Irakur ezazu arretaz zerrendatxoa, eta identifika ezazu zein baieztapen datozen bat sofisten filosofiarekin eta zein, berriz, Sokratesen filosofiarekin; egin ezazu iruzkin bat haien edukiari buruz, eta azter itzazu haien arteko aldeak:**

- Ezagutu zeure burua.
- Errealitatea ikusten dena besterik ez da.
- Egia existituko balitz, ezingo genuke ezagutu..



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

2021eko MAIATZA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2021

**HISTORIA DE  
LA FILOSOFÍA**

#### **Erantzuna:**

- Ezagutu zeure burua. Sokrates: Sokratesen filosofiak barnealdera joateko egiten duen gonbidapen da. Dagoeneko, helburu nagusia ez da unibertsoa edo natura ezagutzea, baizik eta nork bere burua ezagutzea.
- Errealitatea ikusten dena besterik ez da. Sofistak: Sofistek "izatea" eta "zerbaiten irudia ematea" nahasten dituzte. "Hala da, hala iruditzen baldin bazaizue". "Errealitatea ikusten dena besterik ez da". Erlatibismoaren ondorio bat da. Adierazpen horren aurrez aurre daude Sokrates eta Platon, haientzat itxurek engainatu egiten baitute; beraz, gauzen esentziara iritsi beharra dago, gauzak "benetan diren" horretara, gauzak "diruditen" horri aurre egiteko. Platonen haitzuloaren mito ospetsuak tesi hori baieztatzen du, hain zuzen ere: itxuren itzalez haraindi, ideien benetako errealitatea dago.
- Egia existituko balitz, ezingo genuke ezagutu. Sofistak: Gorgias sofistaren eszeptizismoaren printzipioetako bat da. Gizakiaren ulermenak egia ezagutu ahal izateko duen ezintasunari edo mugari egiten dio erreferentzia.

#### **3. Identifikatu lau kausak —efizientea, materiala, formala eta xedezkoa— ondoko adibidean, eta egin haietako bakoitzaren definizio labur bat:**

Fidias eskultore handia sirena baten eskultura zizelkatzen edo lantzen ari da marmolezko bloke batean, Partenoia apaintzeko.

#### **Erantzuna:**

- Fidias kausa efizientea litzateke, bururatzaila, eskultura lantzen duen egilea, artista edo obraren ekoizlea.
- Marmolezko bloke bat: kausa materiala edo gauzen osagai den materia litzateke: marmola, zura, harria, brontzea...
- Sirena bat: kausa formala da, estatuaren forma; kasu honetan, sirena-formakoa. Fidias lantzen ari den ideia edo eredua da. Gauza bat bere formak definitzen du.
- Partenoia apaintzea: kausa xedezkoa litzateke. Helburua da; alegia, Fidiasek bere ekintzaren bidez iritsi nahi duen helmuga, eskultura lantzearen xedea edo zergatia

#### **4. Azaldu nola ulertzen duen San Agustinek arrazoimenaren eta fedearen arteko erlazioak.**

#### **Erantzuna:**



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

2021eko MAIATZA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2021

**HISTORIA DE  
LA FILOSOFÍA**

Ez dago alde nabarmenik arrazoimenaren eta fedearen artean: biek laguntzen dute egiaren bilaketan, eta ezin da oso bereizte argirik egin fedearen eta arrazoimenaren artean. Fedea da, jakina, gidaririk ziurrena: sinetsi egin behar da Jainkoak errebelatzen duena ulertzea iristeko. Baina arrazoimena, halaber, fedearen aurretik joan daiteke, ez egia errebelatuak frogatzeko, baizik eta frogatuz arrazoizkoa dela sinestea. Arrazoimenaren eta fedearen arteko elkarrekiko lankidetzak horrek formulazio ospetsu bat du: "sinets ezazu, ulertzeko; uler ezazu, sinesteko". Fedea ez da arrazoimenaren etsai, eta ez dago bere buruaren gainean itxita: fedearen adimenaren bila dabil.

**5. Identifika ezazu zer ezaugarri dagozkion etika material izenekoei eta zein etika formal kantiarrari:**

- a) Autonomoak dira.
- b) Inperatibo hipotetikoak formulatzen dituzte.
- c) Edukia dute.
- d) Inperatibo kategorikoak formulatzen dituzte.
- e) Ez dute edukirik.
- f) Heteronomoak dira.

**Erantzuna:**

- a) Autonomoak dira. Etika formalaren ezaugarria.
- b) Inperatibo hipotetikoak formulatzen dituzte. Etika materialaren ezaugarria.
- c) Edukia dute. Etika materialaren ezaugarria.
- d) Inperatibo kategorikoak formulatzen dituzte. Etika formalaren ezaugarria.
- e) Ez dute edukirik. Etika formalaren ezaugarria.
- f) Heteronomoak dira. Etika materialaren ezaugarria.

**6. Zuzen erlazionatu Marxengan eragina izan zuten autore eta korronteei buruzko bi datu-zutabe hauek:**

- |               |                        |
|---------------|------------------------|
| • Saint Simon | Anarkismoa             |
| • Feuerbach   | Sozialismo utopikoa    |
| • Adam Smith  | Ezker hegeldarra       |
| • Proudhon    | Liberalismo ekonomikoa |

**Erantzuna:**

- |               |                        |
|---------------|------------------------|
| • Saint Simon | Sozialismo utopikoa    |
| • Feuerbach   | Ezker hegeldarra       |
| • Adam Smith  | Liberalismo ekonomikoa |
| • Proudhon    | Anarkismoa             |



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

2021eko MAIATZA

**FILOSOFIAREN**  
**HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2021

**HISTORIA DE**  
**LA FILOSOFÍA**

**7. Adieraz itzazu “jauntxoen moralaren” eta “esklaboen moralaren” arteko desberdintasun nagusiak, eta azaldu itzazu Nietzschek “ahulen moralari” egin zion kritikaren funtsezko alderdiak.**

**Erantzuna:**

Moral tradizionala (sokratikoa, platonikoa eta kristaua) antinaturala da; hau da, naturaren eta bizitzaren aurka doa. Legeen eta dekalogoen indarrez bizitzari eta senari uko egiten dien moralak da hori. Orain arte irakatsitako moralak da. Haren muina “beste bizitzan” dago: ideien munduan edo zeruan. Beste mundu bat asmatzen da mundu hau gutxiesteko; aldi berean, gorputz bat asmatzen da arima gutxiesteko. Ahuleziaren eta dekadentziaren moralak da, non ahulen balioak sendoei gailentzen baitzaizkie. Nietzschek, beraz, bi moral mota bereizten ditu:

a) Esklaboen moralak: Moral ebanjelikoa da, ezintasunaren eta ahuleziaren moralak. Kaskarkeriaren moralak da, bizitzaren kontrako mendeku-senez eraikitako moralak. Moral horretan, ona da pobrea, txiroa, umila, gaixoa... izatea; ahulen moralak da.

b) Jauntxoek moralak: Nietzschek esklaboen moralaren ordezkotako gisa proposatzen duena da. Zaldunaren moralak da, bizitza, handitasuna eta boterea maite dituenaren moralak. Moral noblea da, bizitzari baietz esaten dioten indartsuen moralak. Supergizakiaren moralak da. Nietzschek arabera, lehenbiziko moralak jauntxoek moralak izan zen, indarra eta independentzia gorenak dituenak. Baina esklaboen matxinada batek, juduek eta kristautasunak bultzatuak, balio moralak iraultzea eragin zuen. Antzina zapalduta bizi izan zirenek metatu zuten erresumina sortzaile bilakatu zen, eta ahulak gorenak dituzten zenbait balio sortu zituen: obedientzia, otzantasuna, mendetasuna... “artaldearen berezko balioak”. Haren ustez, juduek, logika beldurgarri batekin, irauli egin zituzten balio aristokratikoak, hots, indartsuen edo jauntxoek moralak. Kristautasunak onartu egin zuen, halaber, iraultza hori. Nietzschek “legeen harlauzak hausteaz” hitz egiten duenean, ahulen balioez ari da, jauntxoek moralak hots, supergizakiaren moralak ezartzeko gaitasuna eta erabaki behar diren esklaboen moralaren balioez.

**8. Azaldu ezazu zer adierazten duten Sartrearen filosofiaren adierazpen gogoangarri hauek:**

a) "Gizakia alferrikako pasio bat da".

b) "Askatasunera kondenatuta gaude".

**Erantzuna:**

a) "Gizakia alferrikako pasio bat da". Kontzientzia edo "bere baitarako izatea" ez da ezer, hutsa da, betekotada gainerako gauzak behar dituen izan nahia da. Kontzientziak izaera intenzionala du: objekturantz jotzen du. Kontzientziak gainerako gauzak bezalakoa izan nahi du, baina desira hori alferrikakoa da, porrotera kondenatua. Horregatik, gizakia alferrikako pasioa da, bete gabeko desira, amaitu gabeko proiektua...

b) "Askatasunera kondenatuta gaude": Existentzia, batez ere, hautatzea da. Hautatzea askatasunaren ondorioa da; gizakia izaki errotik librea da. Sartrek dioen bezala, "askatasunera kondenatuta, kateatuta, gaude" eta ezin diogu utzi libre izateari.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

2021eko MAIATZA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2021

**HISTORIA DE  
LA FILOSOFÍA**

Askatasunaren bitartez, gure bizitza aukeratzen dugu. Existentziak aukeratzera, zer izan nahi dugun erabakitzen, behartzen gaitu: "...Hautatzeari uko egitea ez hautatzea hautatzea da... (...) ...ez gara libre libre izateari uzteko" (J.P. Sartre: Izatea eta ezereza)

GALDERA	EZAGUTZA-ADIERAZLEA
1	1.5
2	2.3
3	3.6
4	4.4
5	7.6
6	8.3
7	9.4
8	10.4